

# JANARIA BOTATZEAREN KATEA

## Osagaiak:

- Eguneroko eskandalua posterra.
- Ikasle bakoitzeko, laranja edo mandarina bat.
- Zakarrontzi garbi bat.

## Aurretiazko oharra:

- Laranja eta/edo mandarinak erabiltzea gomendatzen dizuegu, erabilerrazak direlako, kolpeak beste fruta batzuek baino hobeto jasaten dituztelako, eta, bereziki, jan baino lehen azala kendu behar zaielako □eta, beraz, denboratxo batean zakarrontzian egonda ere, ez zaie ezer gertatzen□.
- Bakoitzak zakarrontzira bota beharreko ale kopurua *Eguneroko eskandalua* posterrean ageri den ehunekoaren arabera izango da.
- Kopuru egokiak aukeratu, jardueraren bukaeran sortuko diren bi pilak ondo ikusteko. Adibidez, 36 fruta ale jartzea egokia izan daiteke; kasu horretan, kendu beharreko aleak hauek lirateke:

**Ekoizpena:** 2 ale (% 5).

**Prozesatzea eta banaketa:** 3 ale (% 7).

**Salmenta** (txikizkakoak eta saltoki handiak): 4 ale (% 10).


**Kontsumitzailea:** 12 ale (% 33).



## Prestaera:

- Idatzi arbelean katean dagoen eragile bakoitzaren izena (Ekoizpena – Prozesatzea/Garraioa – Denda – Kontsumitzailea). Esan ikasleei elikagaiak ekoizten direnetik guk kontsumitu arteko prozesuan zakarrontzian amaitzen duten elikagaien kopurua aztertzeraz goazela.
- Jarri frutak mahai gainean. Eskatu lau ikasleri laguntzeko<sup>1</sup>; lau horiek mahaiaren alde batean jarriko ditugu. Kolaboratzaile bakoitzari eranskineko txartel bat eman<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> Hemendik aurrera, **kolaboratzaile** deituko diegu.



Kolaboratzaile bakoitzak bere txartelean zehaztutako ale kopurua bota beharko du zakarrontzira. Ez du esan behar zein pertsona edo erakunde ari den ordezkatzeko. Zakarrontzira botatzen dituen kopuruak arbelean idatziko ditugu.

- Denek bukatutakoan, mahai gainean gelditu diren frutak pila batean jarri, eta esan hori dela kontsumitzaileok jaten duguna. Gero, zakarrontzia hartu eta ondoan hustu, eta esan beste pila horretako aleak direla prozesuan zehar zakarrontzian bukatzen dutenak; hau da, ekoitzi zirenetik guregana iritsi artean.
- Konpara ditzatela bi pilak. Pila bakoitzak ordezkatzeko duen ehunekoak zein den esango diegu, eta hauxe azalduko diegu: Europan, ekoizten diren 100 elikagaietatik 45 jaten ditugu eta 55 zakarrontzira botatzen ditugu.

### **Bazkalondoan:**

- Arbelean idatzitakoari erreparatu (katean dauden eragileak eta zakarrontzira botatuko ale kopurua):
  - Zer sentitzen duzue halako zifrak ikustean?
- Kolaboratzaile bakoitzak bota duena gogoratu:
  - Elikagai-katearen zein zati ordezkatzeko du kolaboratzaile bakoitzak, zuen ustez? Komentatu zer adierazten duten eta zenbat janari botatzen duten.
  - Harrituta geratu zarete bakoitzak zenbat botatzen duen ikustean?
  - Harrituta geratu zarete zakarrontzira janari gehien botatzen dutenak kontsumitzaileok garela ikustean?
  - Konturatzeko al zarete zenbateko erantzukizuna daukagun hainbeste janari alferrik botatzen?

Gogoeta osatzeko, jarri ikasgelan *Eguneroko eskandalua* posterra, soilik Ekonomiaren atala ikusten dela, eta komentatu ekoiztutako 100 elikagaietatik zenbat botatzen diren erakusten duen irudia.

Gero, *Aukera dezagun titular bat* jardueran, artikuluko testuaren edukia landuko dugu.

---

<sup>2</sup> Ahal izanez gero, ez daitezela arbelean idatzitako ordena berean egon: Ekoizpena – Prozesatzea/Garraioa – Denda – Kontsumitzailea.



**Nekazaria zara:**

**\_\_\_ ALE KENDU**

**Elikagaiak prozesatzeaz eta banatzeaz  
arduratzen den enpresa zara:**

**\_\_\_ ALE KENDU**

**Produktuak saltzen dituen dendaria zara:**

**\_\_\_ ALE KENDU**

**Kontsumitzailea zara:**

**\_\_\_ ALE KENDU**